



Arartekoaren 2019R-2321-18 Ebazpena, 2019ko maiatzaren 20koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio, berriz azter dezala pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena.

Aurrekariak

1-. Arartekoak herritar batek aurkeztutako kexa izapidetzeko onartu zuen. Horren bidez, interesdunak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zetorrelako bat Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko emandako ebazpenarekin.

2018ko irailaren 28an emandako ebazpenaren bidez, Lanbidek eskaera hori (2018/REV/012237 erreferentzia-zenbakia) ukatu du, honako arrazoi hauek direla eta:

“Existir en su domicilio más unidades de convivencia (cuatro) que habitaciones disponibles (tres).

No cumplir el requisito de empadronamiento y residencia efectiva en la CAE los 3 años anteriores a la solicitud o durante 5 años continuados en los últimos 10. Baja por inscripción indebida en Santurtzi el 6 de mayo de 2016 y alta en Bilbao el 8 de agosto. No ha aportado un solo justificante de residencia efectiva (la matrícula de su hijo no hace referencia a usted).

No ser titular de la Renta de Garantía de Ingresos.”

2018ko azaroaren 12an, kexagileak kexa honen xede den ukatzearen aurkako aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen.

Errekurtso horretan, eskaera ukatzeko bi arrazoiak aipatu zituen, eta dokumentazio gehiago aurkeztu zuen, azken hamar urteetan oraingoan bost urtez jarraian errolatuta egon dela egiaztatzeko.

2-. Erakunde honek informazio-eskaera igorri zion Lanbideri, eta eskatu zion argitzeko zergatik hartu zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko erabakia. Zehazki, alderdi hauei buruzko informazioa eskatu zen:





-Etxebizitzako gelak etxebizitza horretan dauden BUen artean banatu direla egiaztatze eta azaltze dokumentazioa baliogabekoa izan izanaren arrazoiak, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu duen pertsonaren BUaren osatze-modua zehazte aldera.

-Lanbidek eskatzaileak erroldatuta egoteko eta bertan benetan bizitzeko baldintzak betetzen ez dituela uste izanaren arrazoiak, kontuan izanda eskatzaileak egiaztatu duela azken 10 urteetan 5 urtez erroldatuta egon dela EAEn.

-Aurreikuspenen arabera, aukerako berraztertze errekurtsua noiz ebatziko den.

-Interesdunak aurkeztu omen duen azken eskaeraren egoerari buruzko informazioa.

3-. Kexagileak Lanbidek jakinarazi zion aukerako berraztertze errekurtsuaren ebazpena aurkeztu zuen, eta hark bere nahiak ezesten zituen, arrazoi hauek direla eta:

“QUINTO.- Analizados los datos obrantes en el expediente, consta en virtud de los Certificados de Empadronamiento aportados un vacío en el Padrón desde la baja por inclusión indebida en el Padrón de Gernika-Lumo en fecha 06/05/2015 hasta el alta en el Padrón de Bilbao en fecha 04/08/2016.

Debido a esto, y a la falta de justificación por parte del recurrente sobre este extremo, no podemos determinar la residencia efectiva en la Comunidad del País Vasco durante ese periodo en el que no figura empadronado en ningún municipio.

En atención a esto, queda acreditado que la residencia efectiva no se da la continuidad de los cinco años que requiere la normativa expuesta más arriba.

Y es que, el hecho de que el hecho de que se aporte ahora en el Recurso de Reposición presentado una Declaración Jurada sobre el paradero del recurrente en el tiempo de vacío del Padrón, no justifica ni subsana en ningún caso el incumplimiento del requisito reseñado más arriba, puesto que, la sentencia del Tribunal Supremo 5542/2001, de 27 de junio de 2001, señala que en este momento se revisa la resolución inicial con arreglo a los elementos de hecho y de derecho obrantes en el expediente, y no es el Recurso de Reposición momento hábil para intentar modificación de hecho, dado que el expediente administrativo termina con la resolución del mismo,





siendo el recurso de reposición un recurso administrativo que revisa la legalidad de lo actuado.

Por lo expuesto, la incongruencia existente entre el empadronamiento y la residencia efectiva dará lugar a la denegación o extinción de la prestación por no poder acreditar el requisito anteriormente expuesto.”

4-. Bestalde, enplegu erakunde autonomoak erakunde honi Lanbideko zuzendari nagusiaren idazki baten bidez erantzun dio:

Hala ere, administrazio honek benetako gertakizunetara soilik mugatuz ebatzi du kasu hau, eta ez idaztean egindako akatsetara; akatsa erroldan huts bat geratzea izan zen, 2015¹-05-06an Gernika-Lumoko erroldan nahi gabe sartuta egon baitzen 2016-08-04an Bilboko erroldan sartu zen arte.

Gauzak horrela, ezin dugu frogatu benetan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan zenik inongo udalerritan erroldatuta, ageri ez zen denbora-tarte horretan. (...)

Horregatik, eta aurrez aipatutakoari dagokionez, egiaztatu da araudiak ezartzen duen bost urtez benetan bertan bizitzeko betebeharra ez dela bete.

Azkenik, ohartarazi behar da, Lanbideren Irizpide Publikoen arabera, erroldaren eta benetako bizitokiaren artean inkongruentziaren bat badago, prestazioa ukatu edo azkendu egingo dela, lehen adierazitako baldintzak ezin egiaztatu ahal izateagatik.”

Hortaz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak dauzkagula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1-. Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko18/2008 Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak 16.1 artikuluan agintzen duenez, **diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu ahalko du azken hamar urteetan bost urtez jarraian erroldatuta egon denak.**

¹ Arartekoak azpimarratua



Zehazki, 16. artikuluaen idazketa berriak dio eskatzaileak honako hau egin beharko duela:

«b) Eskabidea aurkezteko unean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea, eta eskabidea egin baino urtebete lehenagotik, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon izana eta benetan bertan bizi izana.

Aurretiazko gutxieneko epea betetzen bada, baina hiru urtean erroldatuta egotera iristen ez bada, gutxienez bost urteko jarduera laboral ordaindua egiaztatu beharko da, bizitza laboralaren agiri bidez, salbu eta pentsio publiko bat jasotzen duten edo etxean tratu txarren biktima izan diren pertsonen kasuan.

*Gutxieneko epe hori bete ezean, **eskatzaileak aurreko hamar urteen barruan bost urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana izan beharko du.***²”

Kexagileak egiaztatu du udalerrri eta aldi hauetan erroldatuta egon dela:

- Bilbon: 2010eko irailaren 21etik 2011ko abuztuaren 31ra
- Santurtzin: 2011ko abuztuaren 31tik 2014ko urriaren 6ra
- Gernikan: 2014ko urriaren 6tik 2016ko maiatzaren 6ra.

Kexa eragin duen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera 2018ko ekainaren 25ean aurkeztu ziren; beraz, aurreko 10 urteak 2008ko ekainaren 25ean kontatzen hasiko ziren.

Data horretatik, beraz, egiaztatu ahal izan da bost urtez jarraian erroldatuta izan dela, hau da: 2010eko irailaren 21etik 2016ko maiatzaren 6ra.

Puntu honetan merezi du aipatzea, Lanbidek erakunde honi igorritako txostenak nahiz aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpenak akats bat dutela Gernikako Udalak izena oker emateagatik prestazioen eskatzaileari baja emandako datari dagokionez.

Bi dokumentuetan aipatzen denez, baja 2015ean eman zen; toki administrazio horrek emandako errolda-ziurtagiriaren arabera, ordea, 2016ko maiatzaren 6an eman zitzaion.

² Guk azpimarratua



Erroldan izena emateko ziurtagirien arabera, badirudi baldintza hau egiaztatu dela: aurreko hamar urteetan bost urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetako bizilekua izatea [16.1.b) artikulua].

2-. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu aurreko hamar urteetan bost urtez bertan benetako bizilekua izateko betekizuna egiaztatzeari dagokionez, txosten honetan egindako azterketa gogorarazi behar da: Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017.

“Benetako bizilekua egiaztatzeari” buruzko 5.1.1, apartatuan “erakunde honen ustez, legegileak erroldaz gain beste elementu bat sartu izanak berori egiaztatzeko tresna ere aurreikusi beharko zukeen” azpimarratzen da, eta aurrerago, berriz, “Lanbideren interpretazio hedatu horrek ez dauka legezko babesik; hortaz, Arartekoaren ustez, ad hoc egindako legezko aurreikuspen batean sartu beharko lirateke irizpide espezifikoak eta egoitza eraginkorra egiaztatzeko aurkeztu behar den dokumentazioa, bai araudia aldatzen denean, bai araudiaren garapenean, segurtasun juridiko handiagoa emateko sistemari.”

Arartekoaren aburuz, benetako bizilekua egiaztatzeko moduari buruzko araudi-aurreikuspenik ez egoteak babesgabetasuna sor dezake. Gainera, azpimarratzen du udal-errolda udalerrri bateko biztanleak jasotzen diren administrazio-erregistroa dela; beraz, horko datuak udalerrian bizi izanaren eta ohiko bizilekua bertan edukitzearen froga dira.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.1. artikulua xedatutakoaren bat etorritik: *“ Udal-errolda udalerriko bizilagunak jasotzen dituen administrazio-erregistroa da. Horko datuak udalerrian bizi izanaren eta ohiko bizilekua bertan edukitzearen froga dira. Datu horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako...”*.

Benetako bizilekua egiaztatzeko baliabide gisa erroldan izena emateak duen balioari dagokionez, mahai gainean jarri behar dira auzitegi hauen epaiak: Auzitegi Gorenaren 1984ko ekainaren 11koa eta 1992ko otsailaren 20koa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2005eko irailaren 19koa. Haietan aitortzen denez, biztanleen udal-errolda bizilekua egiaztatzen duen dokumentu ofiziala da, baina *iusuris tantum* presuntzioa ezartzen du, hau da, aurkako froga bidez ezereztu daitekeela.





Gainera, kexagileak benetako bizilekua autonomia erkidegoan duela egiaztatzeko hainbat dokumentu aurkeztu ditu ere; prestazioen eskaerarekin batera egin zuen lehendabizi, Lanbidek aurrez egindako entzunaldi izapideari 2018ko irailaren 27an emandako erantzunean (ikus 2018/312992 erreferentzia-zenbakia duen sarrera-erregistroko egiaztageria), eta ondoren, 2018ko azaroaren 12an aurkeztu zuen aukerako berraztertze errekurtsoarekin batera; bertan, idazkiari erantsitako dokumentazioari buruzko atalean ageri denez, dokumentu hauek aurkeztu zituen, esaterako: medikuarekin izandako hitzorduen historikoak; Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin hitzorduak; ikastetxera sartzen eta handik irteten lagundu diola egiaztatzen duen semearen ikastetxeko ziurtagiria; eta azkenik, kide baten zinpeko deklarazioa (bertan adierazten da bere etxean bizi izan dela erroldan izen-ematea egiaztatu gabeko denboran).

3- Horren harira, Arartekoari garrantzitsua iruditzen zaio aipatzea, ondoren, kexagileak izapidetutako beste eskaera bat ukatzeko ebazpen batean, enplegu erakunde autonomoak honela arrazoitu zuela bere erabakia:

“Presenta solicitud el 22/11/2018 no cumple requisito de empadronamiento y residencia efectiva: no cumple los 3 años de empadronamiento y residencia efectiva inmediatamente anteriores a la fecha de solicitud (hueco en el padrón de Gernika por inscripción indebida el 06/05/2016); no se inscribe hasta el 04/08/2016 en Bilbao. No cumple 5 años en los últimos 10 (hueco en el padrón del 05/05/2010 al 21/09/2010 ni del 04/01/2013 al 31/12/2015 al desestimarse el recurso a la resolución de extinción del expediente 2015/REV/016040).”

2015/REV/016040 erreferentzia-zenbakiko ebazpen horretan, Lanbidek kexagilearen prestazioak iraungitzea erabaki zuen “EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN EZ BIZITZEAGATIK”.

Erakunde honen iritziz, kexagilea erroldan denboraldi batzuetan baja emanda egon izanak (Lanbidek bere entzunaldi izapideak eta ebazpenak aipatzen ditu, 2016ko erroldan izandako baja, bai eta 2010eko beste baja bat ere), edo Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren aurretiko espedienteetan ebatzi izanak (ukatzeko arrazoia benetako bizilekuaren baldintza ez betetzea izanik), bi egoera horiek ez dute nahikoa pisu gaur egun benetako bizilekuaren baldintza betetzen ez duela ulertzeko. Izan ere, eskaera berri hau aparte aztertu beharko zen eta hori guztia aurkeztutako gainerako dokumentazioarekin eta erroldan izen-ematea egiaztatzen duten denboraldiekin haztatu.





4-. Nolanahi ere, Lanbideren erantzunak azpimarratzen du abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoa) 16.b) artikuluan ezarritako baldintza ez dela betetzen, hau da, EAEn erroldatzeari eta bertan bizitzeari buruzkoa; azpimarratzen du ere, haiek betetzen diren edo ez ezin dela baloratu eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan oinarrituz.

Kexagileak bere eskaeran prestazioak aitortzeko araudian ezarritako hirugarren bidea bereziki aipatu ez bazuen ere, esan den moduan, ondoren hori egin du; gainera, baldintzak bete dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu du aukerako berraztertze errekurtsoarekin batera.

Dokumentazio hori aurkezteari dagokionez, Lanbidek bosgarren atalean dio, orduan bere esku zuen dokumentazioarekin, interesdunaren eskubide subjektiboa ez aitortzea behar bezala ebatzi zuela, ebazpen honen aurrekarien atalean sartutako errekurtsoa ebazteko transkripzioan egiaztatu ahal izan denez.

Lanbideren jarrera horrek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean 39/2015 Legea) 118.1. artikulua bigarren paragrafoan du araudi-oinarria. Horren arabera, *“errekurtsoak ebaztean, ez da kontuan hartuko errekurtso-jartzaileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen egitate, agiri eta alegaziorik, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen. Ezin eskatuko da frogak egiteko, orobat, errekurritutako ebazpena eman zen prozeduran ez egin izana interesdunari egotz dakiokenean”*.

Aitzitik, adierazi behar da administrazioak errezeloa duela *“elementu berriak”* sartzeko, administrazio-jurisdikzioa soilik berrikusteko balio duen jurisdikziotzat hartzen zelako lehen. Izan ere, asko eztabaidatu da horren inguruan eta, gaur egun, esan daiteke ideia hori neurri batean gainditu dela.

Hain zuzen ere, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak 2010eko martxoaren 17ko epaian aitortu zuen mota guztietako elementuak, egitateak edo dokumentuak gehitzeko zilegitasuna, baldin eta horrekin interes orokorrak hobeto bermatzen dituen erabaki bat hartzeko aukera ematen den:

“Sexto.- (...) Es errónea la tesis, decimos, y parte de una concepción no aceptable del “carácter revisor” de los recursos administrativos que difiere de la que preside los artículos 107 a 119 de la Ley 30/1992 (RCL 1992, 2512 , 2775 y RCL 1993, 246) , de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común . En contra de lo



afirmado por la resolución que examinamos, es lícito introducir en los recursos de alzada o de reposición hechos, elementos o documentos nuevos, no recogidos en el expediente originario. La posibilidad está expresamente prevista en el artículo 112.1 de la Ley 30/1992 (e implícita asimismo en el apartado tercero del artículo 113) y es coherente, por lo demás, con la función propia de estos mecanismos de revisión de la actividad administrativa.

Los recursos administrativos, además de garantía para los administrados, son también un instrumento de control interno de la actividad de la Administración en la que un órgano superior -o el mismo, en reposición- revisa en toda su extensión lo hecho por otro, sin estar necesariamente vinculado al análisis de los meros elementos de hecho o derecho que este último hubiera tenido o podido tener en cuenta. Lo que se pretende con los recursos es posibilitar una mejor decisión que sirva con objetividad los intereses generales, y ello será tanto más factible cuantos más elementos de juicio se pongan a disposición de quien ha de decidir finalmente sobre la impugnación."

Hortaz, Auzitegi Gorenak ondorioztatu du "elementu berriak" aurkezteko aukerak Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 39/2015 Legean duela araudi-babesa. Zehazki:

-118.1 artikulua honako hau xedatzen du lehenengo paragrafoan: *"jatorrizko espedientean jaso ez diren beste egitate edo agiri batzuk hartu behar badira kontuan, haien berri emango zaie interesdunei, gutxienez hamar egun eta gehienez hamabost iraungo duen epe batean alegazioak egin eta egoki deritzoten agiri eta egiaztagiriak aurkez ditzaten."*

-119.3 artikulua honako hau xedatzen du: *"errekurtsua ebatzen duen organoak prozedurako arazo guztiak argituko ditu, bai formazkoak bai edukizkoak, interesdunek alegatuak izan edo ez. Interesdunek alegatu ez dituzten arazoan gainean ebatzi baino lehen, entzun egingo zaie interesdunei. Nolanahi ere, errekurtsu-jartzaileak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezin izango du inoiz okerragotu haren hasierako egoera. "*

Beraz, adostasun-printzipioa bermatuta eta kexagilearen egoera okertzea ezinezkoa denez, errekurtsua ezagutzen duen organoak espedientean zehar sortzen diren



kontu guztiak ebatzi beharko ditu, interesdunak horiek alegatu dituen edo ez gorabehera.

Ildo horretan, egokia da une honetan Auzitegi Gorenaren 2017ko apirilaren 20ko epaia (615/2016 kasazioa) aipatzea. Horretan, goi-mailako auzitegiak, 2010eko otsailaren 11ko (9779/2004 kasazioa), 2012ko ekainaren 20ko (3421/2010 kasazioa), 2015eko ekainaren 24ko (1936/2013 kasazioa) eta 2017ko apirilaren 20ko (615/2016 kasazioa) ebazpenek adierazitako doktrinan oinarrituta, irmo ondorioztatzen du bere laugarren oinarri juridikoan honako hau: *“por lo tanto asistía, la razón a la parte recurrente en este caso para que la documentación acompañada con su escrito de interposición al recurso de reposición fuese valorada y tenida en cuenta a la hora de resolverse en vía administrativa, sin que su aportación en dicho momento fuese obstáculo insalvable para hacerlo. (...) si en vía económico-administrativa y en vía judicial es posible aportar la documentación que el actor estime procedente para impugnar una resolución tributaria, parece mucho más lógico que pueda hacerse antes en el discurrir procedimental y aportarse en el primero de los medios de impugnación que pueden ejercitarse”*³.

Horrez gain, jurisprudentzia-doktrina horrek Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 56.3. artikulua du oinarri. Zehazki, horrek aukera ematen dio interesdunari, demandarekin batera, eskura dokumentazio guztia aurkezteko, bere eskubidea egiaztatze aldera. Araudiaren xedapen horretatik abiatuta, Auzitegi Gorenak honako hau erabaki du: *“(...) si esto es así en vía jurisdiccional, con más razón debe ser así cuando la documentación se aporta en sede de recurso de reposición”*. Horretarako, ikus Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 24ko epaia (1936/2013 kasazio-errekurtsoa).

Aurretik esandako guztiagatik, Arartekoak uste du zuzena dela adieraztea, **administrazioak dokumentazio jakin batzuen berri badu, hau da, araudian aurreikusitako betekizunak betetzen direla modu frogagarrian egiaztatzen duen dokumentazioaren berri badu, horiek kontuan hartu beharko lirатеkeela. Dena den, errekurtso-fasean hori aurkezteak ez luke eragin beharko dokumentazioa ez onartzea, epez kanpo aurkezteagatik.** Eta hori, besteak beste, ezin delako bestela ulertu **benetako babes judizialerako** eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 24.2. artikuluan xedatutakoa. Izan ere, artikulua horren edukitik ondorioztatzen da interesdunak eskubidea duela bere interesak eta eskaerak babesteko behar diren frogabideak erabiltzeko.

³ Arartekoak azpimarratua



Beraz, aurreko lerroetan adierazi den moduan, **egoitza judizialean frogabide berriak erabili ahal badira, are zentzuzkoagoa da horiek berraztertzekeko administrazio-egoitzan aurkeztu ahal izatea.**

Auzitegi Gorenak 2010eko martxoaren 17ko epaiaren zortzigarren oinarri juridikoan ondorioztatu zuen moduan, zera da egia: *"[n]o puede aceptarse la validez final de un acto administrativo que se basa sobre un presupuesto de hecho demostradamente erróneo"*. Orain aztertzen ari garen kontuan, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenak, interesdunari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea ukatzea erabakitzen duenak, egitatezko oinarri bat du eta horren izaera okerra modu fidagarrian egiaztatu egin da. Hortaz, aurrekoa kontuan hartuta, uste dugu nahitaez egin beharko litzatekeela horren berrikuspena.

Hirugarren gogoeta horretan azaldutakoari gehitu beharko litzaioke honako hau: **printzipio antiformalistak** gidatu behar du administrazioaren jarduketa oro eta horrek eskatzen du forma interes orokorren defentsaren eta bermearen mende egotea.

5- Amaitzeko, Arartekoak uste du kexagileak aurkeztutako dokumentazioak egiaztatzen duela EAEn 5 urtez jarraian erroldatuta egon dela eskaera aurkeztu (2018ko ekainak 25) aurreko hamar urteetan.

Gainera, erroldatuta dagoen etxean bizi den *iuris tantum* presuntzioa ezereztu dela pentsatzeko nahikoa zantzurik ez dago, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 16.1 artikulua aplikatuz.

Beraz, EAEn izandako bizileku eta egonaldiari buruzko dokumentazioaren informazioa aztertu ondoren, honako hau ondorioztatu daiteke: interesdunak Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzeko azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan 16.b) artikuluan ezarritako baldintza egiaztatzen duela *"Gutxieneko epe hori bete ezean, eskatzaileak aurreko hamar urteen barruan bost urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana izan beharko du."*

Amaitzeko, Arartekoak uste du errekurtsio-bidean dokumentu berriak aurkeztea ez litzatekeela horiek ez onartzeko kausatzat jo beharko; izan ere, haietatik ondorioztatzen da kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako





prestazio osagarria jasotzeko eskubidea duela eta, horrez gain, funtsezkoak direla aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpenean interes orokorrak hobeto babesteko eta bermatzeko.

Hori guztia aintzat hartuta, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, ondorioztatu behar da kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko baldintzak betetzen dituela, hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikularekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari honako hau igortzen zaio:

GOMENDIOA

Lanbideak diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak ukatzeko emandako ebazpena berrikusteko gomendatzen du Arartekoak, uste duelako, aurretik adierazitako gogoetetan oinarrituz, araudi aplikagarriak horien titular izateko eskatzen dituen betekizunak betetzen dituela prestazioen eskatzaileak.

